

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

### GIPUZKOAN

49 positibo berri  
3.075 positibo guztira\*

1.625 hildako EAEn  
2 UCIn EAEn

### NAFARROAN

48 positibo berri  
6.681 positibo guztira

\*Hernanin 78 Astigarragan 24

## «Harreman baten itsasondoak mahai gainean jarri nahi ditugu, harremanen tripak agerian jarritz»

'Erik eta Win' bertso-antzerkiak girotuko du gaur, Atsegindegiko plaza, 20:00etatik aurrera. Bi laguneren arteko harreman batek dituen gora beherak kontatuko dituzte, bertso, doinu, dantza eta poesia fusioak erabiliz.

HERNANI UDA HERNANIN

Abuztuari ongi etorria emateko, Uda Hernanin 2020 programazioaren baitako ekitaldi bat antolatu da gaur arratsaldeko 20:00etarako. Eta berezi bezain «erreal» izango da gainera, *Erik eta Win* izeneko bertso-antzerkia eskainiko baitute, Unai Muñoa eta Ander Lizarralde bertsolariak, Imanol Kamio pianoa eta eskusoinua eta Aitor Atxaga gitarrak. Hauen, inprobisazio, anekdota eta hainbat pasarte kontatu dizkio Unai Muñoa taldekideak, Kronikari.

### Kontatu zer den 'Erik eta Win' bertso-antzerkia

Egia esan, gurea definitzen oso zaila da, disziplina ezberdinak nahasten baititugu, eta ia nahi gabe, antzerkia erabiltzen dugu. Eta apur bat gure pertsonaia karikatuzatzen nahi genuelako, eta iruditzen zitzaigulako, umorerako oso tresna ona zela. Bertsoa erabiltzen dugu, hori delako gurea. Poesia eta bestelako ezaugarri batzuekin osatzen dugu ikuskizuna, musikarekin adibidez, azkenean honelako emanaldi bat asko jatzten du eta asko ematen dio. Orduan, poliki, joan gara gureak ez diren diziplinak hartzen, kantagintzatik pixka bat. Imanol Kamio hernaniarra adibidez, koroko zuzendaria da eta berak ikuspegi hori asko sartu digu, esaterako kantatzeko modua zaitzea.

Antzerkia zuzendu du Asier Sota aktore eta zuzendariak, eta hau guretzako oso garrantzitsua izan da, izan ere, aktuazio mundutik oso gutxi dakigu, eta

Asierrrek honetan, asko aportatu digu.

... Orduan esan genezake, gure bertso-antzerkia interdiziplinala dela, baina ez da bere horretan bertso-antzerki bat besterik gabe, gauza asko hartzen baititu baitan. Obra hau gainera, ez da hasi diziplina batetik, mezutik baizik. Guk garbi geneukan zer kontatu nahi genuen, zein zen helarazi nahi genuen mezua, eta orduan poliki-poliki artistikoki elementuak pilatzen joan gara, guri komeni ahala, obrari mesedea egiten diona gehituz.

### Zein da helarazi nahi duzun mezua?

*Erik eta Win* izenak, bi laguneren arteko harremana islatu nahi du, baina denok dakigu, harremanak *handicap* handiak direla, bikote harremanak, lagun harremanak, familia harremanak. Eta hor, badago itsasondo bat, askotan ez duguna menderatzen ezta ikusten.

Hori horrela, guk prozesu terapeutiko baten ondoren, eta Ander eta bion harremana erabilita lekuko moduan, azkenean Ander eta nik daukagun harremana aspalditik dator, gauza asko elkarbanatu ditugu, intimitate maila handi bat lortu dugu, bide oso antzekoa egin dugu. Orduan nahi genuen gure harremana kontatu, baina itsasondo hori mahai gainera ateraz, azkenean harreman baten atzean zer dagoen azalduz. Gure pertsonaren karikatura bat da, bizitzan daramatzagun pertsonaien karikatura. Eta saiatzen



Imanol Kamio, Ander Lizarralde, Unai Muñoa eta Aitor Atxaga emanaldi batean.

gara erakusten gu nondik engantxatu ginen, gure harremanak nola eboluzionatu duen, eta zeintzuk izan diren gure botere harremanak, zeintzuk izan diren gure enbidiak, gure alde ilunak... Tripak agerian jartzen ditugu. Horrekin, enpatia lortzen da, azkenean jendea gustatzen zaio harremanen gaia, oso unibertsal da, eta askotan galduta egoten gara harremanekin, horrek dakartzan gora-beherekin...

### Nondik dator, 'Erik eta Win' sortzeko ideia?

Ander eta biok, aspalditik prozesu terapeutiko bat martxan jarri genuen, bakoitzak berea, nahiz eta oso eremu antzekoan izan. Eta horrek gerora eraman gaitu biok psikologia ikastera, masterra egitera...

Aspaldi, antzerki terapeutiko batzuk egiten genituen, gure taldean, eta orduan ikusten genuen oso interesgarria izan zitekeela, norbere lekukotzatik honelako istorioak kontatzea, jendeak asko enpatizatzen zuelako eta jendea honekin isla-

tzen zelako. Eta orduan, sortu genuen *Ez gara Palestinaz ari*, duela zazpi bat urte, eta filosofia antzekoa zeukan, hor norberari buruz jarduten genuen gehiago, bakoitzak umetan edukitako esperientziez, eta abar. Urte haietan ezberdina izan zen, oso prekarioa izan zelako dena, ez geneukan zuzendari artistiko bat... Emanaldi asko egin genituen, eta oso harrera ona eduki zuten. Eta denbora pasa ahala, zerbait kontatzeko geneukala ikusi geneuean, *Erik eta Win*ekin hasi ginen.

### Zergatik 'Erik eta Win' izena?

Hasieratik, harreman baten inguruan hitz egiteko asmoa genuen, eta baziren bi errefuxiatu urte askotan, Euskal Herrikan kanpora bizi behar izan zutenak, eta elkarrekin. Hauen harremana oso sinbiotizatua zen, azkenean atzerrian bizi ziren, eta ordu asko pasatukoak batera. Bolada batean, Holandesak izatea tokatu zitzairen, eta beraien burua horrela izendatu zuten, Erik eta Win gisa. Eta ezagutzen genuenez istorio

hori, eta gu ere harreman sinbiotizatua batetaz ari ginen. Eta horregatik jari genuen Erik eta Win izena, izenburuak ez zuelako pista haundirik ematen, baina harreman bat islatzen zuen. Egia esan logika askoz gehiagorik gabe, izen hori hautatu genuen, lotura hori zegolako.

### Zer moduzko erantzuna izan du zuen bertso-antzerkiak?

Ba oso ona, hasieran hainbat herrietan egin genituen emanaldiak eta oso erantzun positiboak jaso genituen. Baina ondoren konfinamendua etorri zen, eta horrek ikuskizuna bertan behera gelditzea ekarri zuen. Hala ere, duela gutxi hasi gara martxan berriro, eta era ezberdin batean, izan ere, Oiartzunen eman genuen emanaldia, kalean, eta oso aberasgarria izan zen. Oso esperientzia polita izan zen, uste genuen emanaldia galdu egingo zela kalean, baina ez zen horrela gertatu.

Hernanin gaur daukagun emanaldia ere kalean da, guretzako berria da, baina gogoz gaude. **K**

**FUNERARIA  
ORBEGOZO  
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?  
Deitu Orbegozora**

24 orduko tfnkoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

\* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...



Zentrala - Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

**GAUR** Haizea ipar-mendebaldetik finkatuko da lurralde osoan, ondorioz, temperatura 25°C-ren bueltan ibiliko da toki askotan. Zeru lainotuta agertuko da. **Min.19° / Max.23°**

**BIHAR** Euria egingo du, batez ere goizean, tarteka eta hozten jarraituko du. Temperatura maximoak 20°C-ren bueltan geratuko dira. **Min.17° / Max.21°**

ARGITARATZAILA  
**DOBERA**  
EUSKARA  
ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko  
Udala

Astigarra Udalak

Deiñotzako  
Auzo Udalak

GOIZUETAKO  
UDALA

ARANOKO  
UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Aldabe Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Gaez: Urrutia Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

GOIZUETAKO FORU ALDUNDIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## Paul Ojuelek San Inaziotako txapela irabazi du Egian

Finalean 22-17 irabazi dio pilotari hernaniarrak Julen Alberdiri, buruz buru, Loiola eta Egiako frontoietan jokatu den txapelketan.

**HERNANI PELOTA**

Paul Ojuel, C.D.Hernaniko pelotari nagusiak, Donostiako Loiola eta Egia auzoetako frontoietan jokatu den San Inazio Txapelketako finala irabazi zuen ostegunean. Finalean, Egiako frontoian, 22-17 gairatu zuen Julen Alberdi eta txapela etxera ekartzeari lortu zuen.

Pronostikoak berdinduta zeuden, baina Ojuelek bere esperientzia baliatu zuen normaltasun berrian lortu duen lehendabiziko txapela janzteko.

Ibilbidea ezin hobea egin du txapelketa guztian zehar eta azkenean partidu garrantzitsuek bere maila erakutsi zuen. Txapelketako lehendabiziko partiduan Paul Ojuelek 22-5 irabazi zion Iker Urmenetari (Eple) final-zortzirenetan, ondo-

ren finalaurdenetan 22-21 irabazi zion Xabi Santxori (Pagazpe). Hau izan zen partidurik zailena eta gogorrena.

Finalera sartu aurretik, finalerdian, 22-14 irabazi zion Mikel Elolari (Tolosa) eta finala ere irabaztea lortu du.

Bailarako pelotariak ongi hasi dute konpetiziora buelta. Aimar Mujika eta Ekain Lizegak ere aurreneko txapela irabazi dute Mundarrentzako jubenetan.

**Gaur lagunartekoa Leitzan, goizuetarrek eta leitzarrek**

Aurten herriarteko txapelketa ofizialik ez dago, baina bai lagunartekoak eta gaur bertan, 11:00etan, Leitzan bertako Aurtera eta Goizuetako Umorenaren arteko partiduak jokatuko dira.



Paul Ojuel txapela eta trofeoarekin.

Lau mailatan jokatu dira partiduak: benjamin (sein), alebin (kimu), infantil eta nagusiak. **K**

## Salbuespenezko espetxe politikaren amaiera eskatuko da hondartzetan

199 presoetatik 9 bakarrik daude Euskal Herriko espetxeetan eta sei bakarrik 3garren graduan.

**HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK**

Etxerat berriz bilduko da Euskal Herriko hondartzetan, bihar, salbuespenezko espetxe politikaren behin betiko amaiera eskatzeko. «Izan ere, bada garaia euskal presoen familiakoei, seme-alabei, gurasoei eta lagunei ezartzen zaien zigorrarekin eta sufrimenduarekin amaitzeko, eta bizirik eta etxean nahi ditugulako» dio Etxerat-ek.

Ondorengo hondartzetan el-

karrekin egoteko deia egin dute euskal herritarrei: Gipuzkoan eguerdiko 12:00etan: Donostia, Hondarribia, Mutriku, Orrio, Zarautz eta Deba.

Hernaniko presoen senide eta lagunek Orioko hondartzara joateko deia egin dute. 11:15etan lokala parean (Aristizabal 5, anbulatoririk Horacio) geratuko dira kotxetan Oriora joateko.

«Aurten ere garrantzitsua izango da hondartzetako hitzordu mobilizatzailerik hori, urte

koropilatsu baten ondoren. Izan ere, beldurra eta ziurgabetasuna izan dira nagusi, osasun-krisiak espetxeetan izan duen eraginarengatik. Alarma-egoera deklaratu eta bost hilabete igaro dira eta ezjakintasun, segurtasun eza eta kezka egoera hau jasanezina da. Euskal presoek Euskal Herrian egon behar dute, Euskal Herriko espetxeetan. Estatu espainiarreko 199 presoetatik 9 bakarrik daude Euskal Herriko espetxeetan. Horietatik guztietatik, 6 preso baino ez daude hirugarren graduan eta 140k lehen graduan jarraitzen dute». **K**

**TALLERES JUANTXO**  
Juan Ignacio Rodríguez

- Diagnosi unibertsala
- Suspentsioak, Balastak
- Neumatikoetan aukera zabala
- Olio aldaketak. Mekanika orokorra
- Aire egokituaren karga eta konponketa

ESKAINITZA NEGU ETA UDAKO NEUMATIKOETAN

Astelehenetik ostiralera:  
09:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00  
Larunbatetan: 10:00 - 13:00

Andre kalea, 60 (Atzietas) Hernani Telf: 943 25 66 08 [tallerjuantxo@gmail.com](mailto:tallerjuantxo@gmail.com)

**IRUBIDE JATETXEA**  
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7  
943 552 480 - 667 208 702

## Zurutuza-Manterola, Oiartzungo finalean

Madalensoro frontoian jokatu dira gaur, EHko Pala Txapelketa Irekiko finalak hiru mailatan goizeko 08:15etan hasita.

**HERNANI PALA**

Luze joan bada ere, azkenean Euskal Herriko 16garren Pala Txapelketa Irekiko finalak gaur jokatu dira Oiartzunen Madalensoro frontoian. Berandu izanagatik edo, goizean goiz hasiko da gaur jaialdia, 08:15etan, eta lau partidu jokatu dira guztira. Alde batetik nesken erakustaldia bat eta ondoren hiru maila desberdinetan finalak.

Hernaniko palistak lehendabiziko bi partiduetan ariko dira. Honela, lehendabizikoan,

Zurutuza eta Manterola hernaniarrak, Mendigain eta Agirre izango dituzte aurkari. Finalera sailkatzeko Hernandez eta Suspe gairatu behar izan zituzten 25-24 partidu oso gogor batean.

Bigarren partiduan Urdangarin eta eta Galdose hernaniarrak, Eizmendi ahizpen aurka jokatu dute erakustaldiko partidua. Ondoren bigarren eta lehenengo mailako finalak jokatu dira, baina ez da hernaniarrak egongo. Oiartzungo 38garren Pala Txapelketa ere badira gaurko finalak.

**Zarautzen eta Igeldon, 3garren Hernaniko palistan han eta hemen ari dira jokatzeko.** Zarautzeko Paleta Txapelketan, Tijero eta Badiola hirugarren salkatu dira eta Igeldon postu berdina lortu dute Gorostegi eta Alkortak. **K**

## Errioguarda irekita abuztuan zehar

**HERNANI HOSTALARITZA**

Errioguarda jatetxea abuztuan zehar irekita egongo da eta gaur, larunbata, bazkariak eta afariak emango dira. Atzo, San Inazio egunez, bazkaritarako aukera egon zen.

## Sagar Kulturaren gaur, Anai taldea

**ASTIGARRAGA SAGARDOA**

Uztaila eta abuztuan zehar SagarArtek arte eszenikoen sektoreari laguntza bota nahi dio eta horretarako, kulturarentzako gunea seguru bat sortu dute Astarbe sagardotegian. Sagar Kultur kultur-gunea sortu da eta gaur, 22:30etan Anai herriko musika taldeak kontzertua eskainiko du Astarbeto terrazan. Aukera dago ekitañdia bakarrik ikusteko edo baita ekitaldia eta menuaz dastatzeko.

## Asteartean egingo da odol ematea

**GOIZUETA ODOL EMATEA**

Hurrengo asteartean autohemotekarekin joango dira Goizuetara emaleei odola ateratzera. 17:30etatik 20:30etara izango da zita eta harrera mediku kontsultan egingo da eta odol ematea plazan. Eskatutako hitzordua daukatenak onartuko dira bakarrik. Eska daiteke hitzordua 848 42 05 73 telefono zenbakian.

## Galarretak 16:00etan irekiko ditu ateak

**HERNANI ERREMONTA**

Buruz buruko nagusian sartzeko aurreko bi partidu jokatu dira gaur Galarretan. Betiko ordutegira itzultzen da frontoia eta jaialdia 16:00etan hasiko da. Bi buruz buruko partida eta binakako bat jokatu dira. Juanenea eta Aizpuru III arituko dira lehenengo partiduan, eta Larrañaga Zalduren kontra, hirugarrenean. Bigarrenean, Ansa II eta Barrenetxea IV, Urriza eta Endikaren kontra.

**IRAGARKI MERKEAK**

Etxebizitza bat alokatzen da Latxunbe Auzoan. 3 logela. 750 euro hilean. Deitu 650 14 99 60 Iraitzen, haurrekin laguntzeko pertsona euskalduna behar dut Astigaragan. Interesatuak idatzi hona: [garban69@gmail.com](mailto:garban69@gmail.com)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)